

KONTULARITZA ETA AURREKONTU ARLOKO BURUA

LANPOSTUAREN ZEHAZTAPEN LABURRA / DESCRIPCION RESUMIDA DEL PUESTO

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari esleitutako aurrekontua egitea Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorrren Zuzendaritzak eta Segurtasun Sailak ezarritako Aurrekontu Politiken arabera. Era berean, aurrekontuaren eta kontabilitatearen egikaritzea antolatu, zuzendu eta gainbegiratzeko du aurrekontu-politikak eta -helburuak arinago lortzeko eta helburu horiek ezarritako legezko arauen arabera betetzen direla bermatzeko.

EGINKIZUNEN AZALPEN ZEHAZKA / DESCRIPCION DETALLADA DE LAS TAREAS

Kontabilitate eta Aurrekontuen Arloa zuzendu, antolatu eta planifikatzea giza baliabideak nahiz lanaren banaketa egituratuz.

Ertzaintzaren aurrekontua urtero prestatzea.

Aurrekontuen euskarri den dokumentazioa prestatzea.

Legebiltzarrean, Aurrekontu Orokorrak aurkeztu direnean, aurkeztutako zuzenketak defendatzeko txostenak egitea.

Aurrekontua egiteko lanak zuzentzea Ertzaintzaren aurrekontu-premiak estalita edukitzeko.

Aurrekontu-saldoak sortzen diren premietara agintzea, aurrekontu-mugimenduak, transferentziak, txertaketak, partiden sorrerak eta abar egin ostean.

Hileko, hiruhileko eta urteko itxierak prestatzea eta emaitzen eta aurreikuspenen artean sortutako desbideratzei buruzko azterketak egitea, aurrekontua egikaritzeko fase desberdinetan, baita geldikinen eta hondarren aurrekontuak ixteko saldoak aurreikustea ere.

Langileen kontratazioen kontrol ekonomikoa egitea.

Ertzaintzaren Aurrekontu Programen gai ekonomikoak –Batzorde Ekonomikoan eta Gobernu Kontseiluan onartu behar direnak– kudeatzea.

Gastuak eta diru-sarrera publikoak kontrolatzeko dokumentu guztien sinadura baimendua Ekonomia eta Ogasun Sailaren aurrean baita hiru Lurralde Unitateetan gasturako baimendutako kontu korronteena ere.

Aurrekontuaren kapituluetakoa kontabilitate-aplikazioa zuzendu eta kontrolatzea.

Hasitako ekintza eta kontrol guztien gaineko administrazio-legezketasuna Ertzaintzaren Aurrekontuei behar bezala aplikatzen zaiela gainbegiratu eta egiaztatzea. Polizia Unitateen eta Zentroen funtzionamendu ekonomikoaren (kontabilitatearen eta aurrekontuaren gainekoa) ildo nagusiak egin eta zuzentzeaz gain, egindako gastu-kapitulua bete ote den aztertzea ahalbidetzen duen programa informatikoa garatzea.

Erantzun behar zaien hitzarmen kolektiboak onartzeko behar den informazio ekonomikoa ematea.

Aseguru-polizak kontratatzeke modua globalki gainbegiratzea.

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak ezagutzeko eta erabiltzeko balio izango duten arau ekonomikoak egitea.

Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren urteko memoria egiten esku hartzea, emaitza ekonomikoei dagokienez.

Ertzaintzaren kudeaketa-eredu ekonomikoa (EKEE) gainbegiratzea.

Diruzaintza kontrolatu eta kudeatzea zortzi kontu delegaturekin (bost gasturenak eta hiru diru-sarrerarenak) baimendutako moduekin eta 16 milioi euro mugimenduan izanik.

Nahitaezko txosten ekonomikoak egitea Dekretuak, aginduak eta gainerako xedapenak onartzeko.

Bizitzari eta istripuei, erantzukizun zibilari, gainerako materialei, helikopteroei eta ontziei dagozkien aseguru-polizak kontrolatu, gainbegiratu eta kudeatzea.